



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2015eko ABENDUAREN 15ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2015eko abenduaren 15ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Onintza Gorostidi Murua
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Uxue Etxebeste Eizagirre
Xabier Mugika Letamendia
Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - 2015eko urriaren 27an egindako ohiko bilkuraren akta.
 - 2015eko azaroaren 24ean egindako ez ohizko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 03/2015 Kreditu Aldaketaren onespena, hala bada.**
- 5. Erniozaleak Kultur Elkartek eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.**
- 6. Alkizako Herri Ostatuaren errentamentu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguaren onarpena eta lehiaketa irekirako deialdiaren onespena, hala bada.**
- 7. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2015eko 3. Eta 4. Hiruhilabeteko ekarpena burutzea, hala bada.**
- 8. L.A. jaunak eginiko eskaera aztertu, hala bada.**
- 9. Tolosaldea Garatzenek eginiko eskaera aztertu, Eskualdeko proiektu estrategikotarako funtsa, hala bada.**
- 10. Aiztondo Klasikoa batzordeak aurkezturiko 2014 eta 2015 urteei dagozkion kitapenen onespena, hala bada.**
- 11. Beste batzuk.**
- 12. Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2015eko urriaren 27ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2015eko azaroaren 24ko ez ohizko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

43/2015 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 4koa, Beleburupe Guraso elkarteak eginiko eskaera onestea, ebazten duena.

44/2015 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 4koa, Beleburupe Guraso elkarteak eginiko eskaera onestea, ebazten duena.

45/2015 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 10ekoa, J.M.T. jaunari herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

46/2015 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 10ekoa, Excavaciones Peru eta A.J.R. andreak sinatutako akordioa berrestea, ebazten duena.

47/2015 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 9koa, Kreditu Aldaketaren espedienteari hasiera ematea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

ELECTRICIDAD ZIZURKIL	3.804,42
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	713,30
IBERDROLA	46,42
AUDAX	23,79
AUDAX	42,90



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

MOVISTAR	92,67
MOVISTAR	76,79
ABM-REXEL	140,72
ARGITU ASESORES	156,50
PC COMPONENTES	105,05
MOVISTAR	3,71
SEIKIN	690,91
TOLOMENDI	150,00
QUISER	31,64
KEY-LAN	3,99
IAMETZA	2.662,00
EBA ERKIZIA	1.434,61
MICROTOOLS SISTEMAS INFORMATICOS	1.148,00
SOLRED	102,98
AUDAX	500,56
EUSKALTEL	66,15
DIONISIO ORMAZABAL	93,32
CALPARSORO INDUSTRIAL	36,07
IZADI LABORATEGIA	152,94
JOYN MOBILIARIO	1.309,37
ITTEN	651,26
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	757,01
LEFEBVRE EL DERECHO	1.190,24
BIDATEK	471,90

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **16.199,33** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

03/2015 KREDITU ALDAKETAREN ONESPENA, HALA BADA

Udala honen 2015 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren bototara jarri eta bertaratuek, aho batez honako hau

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.141.153.40.01 2015	aguazilaren laguntzailea	0,00	1.900,00	1.900,00
1 0000.160.323.00.01 2015	gizarte segurantza brigada	12.000,00	500,00	12.500,00
1 0000.201.320.00.01 2015	ESKOLAKO LOKALA ALOKAIRUA	2.178,00	182,00	2.360,00
1 0000.210.161.00.01 2015	UR AZPIEGITURA MANTENIMENDUA	2.500,00	3.500,00	6.000,00
1 0000.212.166.00.01 2015	fosako saneamendu kontrola	6.000,00	2.000,00	8.000,00
1 0000.215.920.00.01 2015	INFORMATIKAKO MATERIALA	500,00	500,00	1.000,00
1 0000.220.920.00.01 2015	BULEGO MATERIALA	2.000,00	500,00	2.500,00
1 0000.221.150.00.01 2015	UDALETXEA ARGINDARRA	2.000,00	1.030,00	3.030,00
1 0000.221.161.00.01 2015	UR BOMBA ARGINDARRA	4.200,00	970,00	5.170,00
1 0000.221.230.00.03 2015	DON JUANENA GASA	1.300,00	500,00	1.800,00
1 0000.221.920.00.09 2015	garbiketa produktoak	1.500,00	1.000,00	2.500,00
1 0000.222.920.00.05 2015	IZFE INFORMATIKA ZERBITZUAK	7.000,00	264,00	7.264,00
1 0000.224.920.00.99 2015	BESTE ARRISKUEN	2.100,00	50,00	2.150,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

	ASEGUROAK			
1 0000.226.330.00.06 2015	IHARDUERA SOZIOKULTURALAK	500,00	500,00	1.000,00
1 0000.226.172.00.99 2015	fagus alkiza partehartze prozesua dirula	0,00	2.428,00	2.428,00
1 0000.226.920.00.99 2015	BESTE HAINBAT GASTU	1.200,00	500,00	1.700,00
1 0000.227.920.00.07 2015	i.k.t teknikaria	1.800,00	423,00	2.223,00
1 0000.421.162.30.01 2015	TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA TRATAMENDUA	2.880,00	2.050,00	4.930,00
1 0000.480.326.00.01 2015	EUSKERAKO DIRULAGUNTZAK	0,00	422,00	422,00
1 0000.480.925.00.01 2015	PARTIKULARREI DIRULAGUNTZAK	680,00	781,00	1.461,00
1 0000.481.340.00.03 2015	AIZTONDO KLASIKA	1.500,00	21,00	1.521,00
1 0000.623.342.00.01 2015	FITNESS ZINTA	0,00	899,00	899,00
1 0000.623.166.00.02 2015	araztegiko ekipo berria	0,00	2.806,00	2.806,00
1 0000.626.920.00.01 2015	gipuzkoa share	1.875,00	0,50	1.875,50
1 0000.227.150.00.07 2015	AHOLKULARITZA HIRIGINTZA	4.000,00	8.000,00	12.000,00
1 0000.421.230.00.01 2015	AIZTONDO MANKOMUNITATEA- G.Z	20.000,00	3.000,00	23.000,00
1 0000.421.330.00.01 2015	AIZTONDO MANKOMUNITATEA- KULTURA	10.000,00	5.000,00	15.000,00
1 0000.421.431.00.01 2015	tolosaldeko hiltegia	0,00	113,00	113,00
1 0000.626.925.00.01 2015	web orria liferay plataformara migratzea	0,00	6.122,60	6.122,60
1 0000.211.933.00.01 2015	herriko ostatua konponketak	750,00	250,00	1.000,00
1 0000.211.920.00.01 2015	UDAL ERAIKINEN KONPONKETAK	2.000,00	700,00	2.700,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

1 0000.220.332.10.02 2015	LIBURUTEGIKO FONDO ETA HARPIDETZAK	730,00	200,00	930,00
1 0000.685.933.00.01 2015	herri ostatuko altzariak	1.500,00	100,00	1.600,00
1 0000.625.332.00.01 2015	liburutegiko altzariak	0,00	1.310,00	1.310,00
1 0000.626.332.00.01 2015	liburutegirako ordenagailuak	0,00	2.300,00	2.300,00
1 0000.622.150.00.01 2015	udaletxeko teilatua	190.000,00	6.273,00	196.273,00
GUZTIRA		282.693,00	57.095,10	339.788,10

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
c	2 0000.720.000.00.01 2015	euskerako dirulaguntza	422,00
c	2 0000.720.000.00.08 2015	fagus alkiza dirulaguntza 2015	28.711,88
c	2 0000.720.000.00.09 2015	web orria migrazioa	4.591,95
d	1 0000.642.920.00.01 2015	plan orokorra	19.980,27
d	1 0000.643.920.00.01 2015	udal inbentarioa egitea	3.389,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			57.095,10

BIGARRENA.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedientea behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

HIRUGARRENA: 2015eko abenduaren 9an egindako Kontuhartzailearen komunikazioa onestea, non azaltzen den:

“Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2015erako gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Hala ere, kontuan izanda 2015erako ezarritako defizit eta zor helburuak betetzen direla eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko eta 2014ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta udalbatzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

Dena den, gaikuntza espedienteak honako finantziakzioa du :

-Sarrerren gehitzea.....33.725,83€
-Gastuen gehitzea.....23.369,27€

Eta argi eta garbi ikusten da gaikuntza espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.”

BOSTGARREN PUNTUA

ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU

Ikusirik Erniozaleak Kultur Elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten bi urtez behin antolatzen den zortzi herrien arteko ibilaldia 2016 urtean Asteasun antolatuko dutela, maiatzaren 15ean. Horretarako eta 2014. Urtean sinatutako hitzarmenaren ondorioz 374 eurotako diru-laguntza eskaera egiten dute.

Ikusirik Alkizako Udalak, 2016 urterako aurrekontuak onartu gabe dituela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Alkizako Udalak konpromisoa hartzen du, 2016. Urteko aurrekontuetan Erniozaleak Kultur Elkarteari 374 eurotako diru-laguntza emateko nahiko kreditua gordeko duela.

BIGARRENGOA.- Erniozaleak Kultur Elkarteari erabaki honen berri ematea.

SEIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRI OSATATUAREN ERRENTAMENTU ETA USTIAPENA, LEHIAKETA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO, EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBO BALDINTZEN PLEGUAREN ONARPENA ETA LEHIAKETA IREKIRAKO DEIALDIAREN ONESPENA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik datorren 2015eko abenduaren 31an, Alkizako herri ostatua itxi egingo dela, bere errentamendu eta ustiapena eramaten duenak ez duelako jarraitzeko asmorik.

Ikusirik, Alkizako Udalak, prestatu dituela Alkizako Herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen plegua.

Ikusirik espediente osoa Udalbatzarraren ezagupenean jarri dela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Alkizako Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguaren onarpena ematea.

BIGARRENA: Alkizako Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko lehiaketa irekirako deialdiaren onespena.

HIRUGARRENA: Alkizako herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguaren onespena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zortzi eguneko epean, publikoan jartzea, interesatuek aztertu, eta behar bada, egoki deritzoten erreklamazioak aurkez ditzaten.

LAUGARRENA: Alkizako Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko lehiaketa irekirako deialdiaren onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailen perfilean argitaratzea, interesatuek hogeita hamar egun naturaleko epean euren proposamenak aurkeztu ditzaten.

ZAZPIGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2015 URTEKO 3. ETA 4. HIRUHILABETEKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2015eko urriaren 22an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2015 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 23.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Gizarte zerbitzuak: 14.000,00 euro
- Kultura: 9.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 23.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2015 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 14.000,00 euro
- Kultura: 9.000,00 euro

BIGARRENA.- 23.000,00 eurotako gastua onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

L.A.JAUNAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik L.A. jaunak eginiko eskaera, non dioen ur aberi bat izan duela eta kontadorea bere terrenoan ez dagoenez ez dela konturatu. Horregatik kontadorea lehen zegoen tokian jartzeko eskaera egiten du.

Ikusirik, Alkate jauna L.A. jaunarekin hitzegin duela gaia argiturik, Udalbatza honek, aho batez, gaia arxivatzea erabakitzen du.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZENEK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, ESKUALDEKO PROIEKTU ESTRATEGIKOTARAKO FUNTSA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek eginiko eskaera, non Alkizako Udalari, 2014,2015,2016,2017 urteetarako hartua duen konpromisoaren arabera, 2015 urteari dagokion ekarpena egin dezaiola eskatzen dio, Tolosaldeko Proiektu Estrategikoaren Funtzari, Tolosalderako estrategikoak izan daitezkeen proiektuak bideragarri bihurtzeko baliabideak bermatuz eta horrela eskualdera, eta ondorioz, Alkizako udalerrira ere, enplegua eta aberastasuna sustatzeko bide berriak irekiz.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Tolosaldea Garatzen, S.A. garapen agentziak, Alkizako Udalari eskatzen diola, funtsan ekarpena honako irizpideak jarraituz egin dezala 2015 urteari dagokion ekarpena:

“Urteko ekarpena udalerrri bakoitzak aurreko urtean IAE kontzeptuan kobratutako kopuru totalaren % 10 izango da.”

Kontutan izanik, Alkizako Udalak eta beste hainbat herri txikik ez dutela IAE kontzeptuan ezer kobratzen.

Aurrekoa kontutan izanik, Herri txikien bilera baten ostean, erabaki zen IAE kontzeptuan kobratzen ez duten herriek Tolosaldea Garatzen-i 500 eurotako ekarpena burutzea, Tolosaldeko Proiektu Estrategikoen Funtsari.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen, S.A. garapen agentziari 500 eurotako ekarpena egitea, 2015 urteari dagokion Tolosaldeko Proiektu Estrategikoaren Funtsari.

BIGARRENA: 500 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldea Garatzen, S.A. garapen agentziari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

AIZTONDO KLASIKOA BATZORDEAK AURKEZTURIKO 2014 ETA 2015 URTEEI DAGOZKION KITAPENEN ONESPENA

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, XI eta XII. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta Memoriala” -ren kitapenak prestatu dituela. Alkizako Udalak, egindako ekarpena XI. dagokionez, 1.482,83 euro izan zen eta kitapena 1.354,11 euro izan zen, XII Aiztondo Klasikoari buruz, Alkizako Udalak eginiko ekarpena, 1.444,81euro izan da eta kitapena berriz 1.416,98 euro.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- XI eta XII Aiztondo klasikoa “Patxi Alkorta Memoriala”-ren kitapenak onestea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HAMAIKAGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

11.1. NATURTZAINDIA

Ikusirik, 2015eko maiatzaren 6an, Alkizako Udala eta Naturtzaindiaren artean lankidetzaren hitzarmena sinatu zela, azken honek, Hernio Gazume KBE barneko udal sailetan udalak lortutako EJ-ko laguntzen kudeaketa egiteko.

Ikusirik, 2015 urtean zehar Naturtzaindiak egin dituela hainbat lan, Eusko Jaurlaritzak Hernio Gazume KBE barneko udal sailetan emandako diru-laguntzak justifikatzeko. Horretarako Naturtzaindiak Alkizako udalerrian eginiko lanen fakturak aurkeztu ditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA: Naturtzaindiak aurkezturiko 2015/04 faktura onestu. 2015maiatzaren 6an, sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren babesean. Fakturaren zenbatekoa 21.146 euro izanik.

BIGARRENGOA: 21.146 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENGOA: Naturtzaindiak aurkezturiko 2015/05 faktura onestu. 2015maiatzaren 6an, sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren babesean. Fakturaren zenbatekoa 18.500 euro izanik.

LAUGARRENGOA: 18.500 eurotako gastua onestea.

BOSTGARRENGOA: Naturtzaindiak aurkezturiko 2015/06 faktura onestu. 2015maiatzaren 6an, sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren babesean. Fakturaren zenbatekoa 21.596 euro izanik.

SEIGARRENGOA: 21.596 eurotako gastua onestea.

11.2. J.A.M. JAUNAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, J.A.M. jaunak eginiko eskaera, non dioen Alkizako herrian asteen behin Ondarruko arraina freskoa saltzeko interesa duela, beraz herrian zehar geldiuene batzuk egiteko baimena eskaera egiten du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.A.M. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da Alkizako herrian zehar, asteen behin Ondarruko arraina saltzeko baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri J.A.M. jaunari ematea.

11.3. IRABAZI XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2015 urtean zehar irabazi xederik gabeko erakundeek Alkizako Udaletxean aurkeztu dituzten diru-laguntza eskaerak.

Ikusirik Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaileak adierazi duela diru-laguntzak esleitzeko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak xedaturikoa hartu beharko litzaketela kontutan.

Ikusirik 2015 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusi dela.

Gaia azterturik Udalbatza honek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Irabazi asmorik gabeko ondorengo erakundeei diru-laguntza esleitzea:

- Nafarroa Oinez 2015.	100,00 euro.
- Herri Urrats 2015	100,00 euro.
-Tolosaldea Sahararekin G.K.E.	200,00 euro
-UNRWA Euskadi.	100,00 euro

GUZTIRA 500,00 euro

BIGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

12.1. AIZTONDO BAILARAKO PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO MUGIMENDUAK AURKEZTURIKO MANIFESTUAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik, Aiztondo bailarako presoek eskubideen aldeko mugimenduak aurkezturiko manifestua, non ondorengoak dioen:

“GIZA ESKUBIDEAK, IRTENBIDEA, BAKEA

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!

Urtero bezala, neguan murgildu garen honetan, gabon jaietako egun bereziak iritsi zaizkigu Aiztondo bailarara. Urteko azkenak eta urte berriko lehen egun hauek, senide eta lagunekin egoteko, Olentzerori ongi etorria egiteko, aspaldi ikusi gabekoak berriz ere ikusteko, elkar besarkatzeko, herriko giroaz gozatzeko, otordu goxoak egiteko... egunak izan ohi dira. Era berean, herritik urrun daudenak eta gure artean izaterik ez dutenak gogoan izateko, eta beren familiei babesa eta elkartasuna adierazteko egunak ere badira honako hauek.

Amasa - Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna, Larraul eta Alkizako udal ordezkariok, euskal presoek pairatzen dituzten eskubide urraketak gaitzesten ditugu eta espainiar eta frantziar Estatuei eskubide hauek bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzatela exijitzen diegu. Bada garaia herri honetan behin betiko konponbidea eta bakea eskuratzeko, baina hori ez da posible izango presoek eta beraien familia eta lagunak giza eskubideak urratzen dituzten kartzela politikak behin betiko amaitu gabe.

Estatuek ordea, gaur gaurkoz ez dute norabide horretan aldaketarik egiteko inongo borondaterik agertu. Egoera honen aurrean, erakunde publiko zein herritarrek asko egin dezakegula uste dugu, ez da iritsi daitekeenaren zain eta geldirik egoteko unea, herri honen gehiengoak aldaketak eskatzen ditu eta zentzu horretan herritarrek mobilizatzea beharrezkoa dela ikusten dugu.

*Honenbestez, Aiztondo bailarako udal ordezkariok, datorren **abenduaren 31n arratsaldeko 19:00etan, Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik irten eta Villabonako Errebote plazan amaituko den manifestazio isila** deitzea erabaki dugu.*

Hauek dira manifestazio honen bidez, espainiar eta frantziar Estatuei helarazi nahi dizkiegun oinarrizko eskaerak:

1 - Dispertsioa amaitzea eta euskal presoak euskal herriratzea.

Beharrezkoa da presoek eta batez ere beren familia eta lagunei bidegabeko zigor erantsia ezartzen dien sakabanaketa politikarekin behin betiko amaitzea.

2 - Gaixotasun larri edota sendaezinak dituzten presoek kaleratzea.

Gaixotasun sendaezinak dituzten presoek espetxetik irten eta etxetik hurbil dagoen erietxean egoteko eskubide osoa dute, hau espainiar legedian bertan



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

jasota dago. Beraz, eskubide hau errespetatzea eta larri gaixo dauden 12 presoen berehalako kaleratzea exijitzen dugu.

3 - 70 urtetik gora dituzten presoak kaleratzea. “

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Aiztondo bailarako presoen eskubideen aldeko mugimenduak aurkezturiko manifestua bere osotasunean onesten du.

Eta azertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, azertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.